



SAGARDO TEGI AN EUSKARA ERABILPENAZ ZER DIOGU ?

Astigarraga eta Hernaniko Udalek sagardotegietan euskararen erabilpena suspertzeko «SAGARDO TXOTXETIK, EUSKARA GOGOTIK» izeneko kanpaina antolatu zuten.

Sagardo txot bolada pinpilean zegoen momentean ospatu ziren zenbait ekitaldi eta aktibitate euskal giroa aberasteko sagardotegietan.

Kanpainaren diseinu eta ardura teknikoa Hizkuntz Zerbitzuak —erakundeak eraman ditu—, zeinak beste egitekoen artean euskararen erabilpenaren neurketak burutu bait ditu, Hernani eta Astigarragako sagardotegi batzuetara hurbildu den jendearekin.

Neurketa hau egiteko erabilitako metodologia eta faktoreak honako hauek izan dira.

- Herri bakoitzaren hiru sagardotegietan.
- Hiru tamainaren arabera: handi, ertain eta txikiak.
- Astegun eta asteburuetan buruturik: iluntzeko 8etatik 11ak bitartean.
- Bi neurketa:

1goa: Otsailaren 14, 16 eta 19an
2goa: Martxoaren 21, 23 eta 26an.

— Bertan zeuden pertsonak hiru adin taldetan sailkatu —Gazteak, Helduak, Zaharrak—.

Aipatutako puntu horietan oinarriturik euskara erabilpen eta ezagupenaren arabera ateratako datu eta laukiak zehatz mehatz azaltzen dizkizuegu, bakoitzak euskararekiko dugu jarreraz GOGO ETA BALORAZIOA EGIN DITZAGUN.

1. eta 2. NEURKETAK: GUZTIZKOAK

	Euskaraz		Erdaraz		Bietan		Guztira	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1. Neurk	324	%23,2	987	%70,9	83	%5,9	1.394	%100
2. Neurk	764	%43,8	911	%52,1	72	%4,1	1.747	%100

PORTZENTAI OROKORRA, ADIN TALDEKA

